

Auto elektrikoen bateriak hobetzen

HIDROGENOA erregai modura duten auto-mobil elektrikoen inguruan ikerketa ugari egiten ari dira, baina oztopo gairik ezin bat izan dute beti: hidrogenoa lortzeko platinoa behar izatea. Platinoa eskasa da naturan, eta ondorioz garestia. Hura ordezkatzeko egindako ikerketa lan gehienek porrot egin dute.



Kopenhageko Unibertsitateko Mathias Arenz-ek zuzendutako ekipoak platinoarekiko menpekotasuna gutxitzea lortu du, hainbat katalizatzaile erabiliz. Ikertzaileek lortutakoaren arabera, egun bateria bakoitzean behar den platino kantitatearen bostena baino ez da beharko.

Teknologia pixkanaka aurrera egiten ari den bitartean, zertan da auto elektrikoen merkaturak? Orain bizpahiru urte aurreikuspen oso interesgarriak egin ziren, Europar bederen, baina ari al dira betetzen? Ikusten al da bateriak kargatzeko entxufeen eraikitzea areagotu denik?

Gaiak artikulua sakonago bat merezi du, baina aurrerapen gisa aipa dezagun Espainiako Estatuan azken hiru urteetan gertatutakoa: Zapateroren gobernuak kide Miguel Sebastianek iragarri zuen 250.000 kotxe elektriko zirkulatuko zutela 2013an espainiar errepubliketan, baina une honetan ez dut uste 10.000 baino gehiago dabilenik. ■



Espazioa hobeto ikusteko

ARIZONAKO UNIBERTSITATEKO astronomoek lente berezia prestatu dute, egungo teleskopioei erantsen zaiona, eta horren bidez lurretik hartzen diren zeruko argazkiak askoz ere garbiagoak dira. Lente berezi horrek atmosferak sortzen duen dirdira ezabatu eta argazki askoz ere garbiagoak ateratzen ditu. Une honetan Txileko Las Campanas behategian instalatuta dago, eta jada Hubble teleskopio espazialak baino argazki garbiagoak ematen ditu. ■



KATIE MORZINSKI



Perseida edo izar usoen ikuskizun zoragarria

Kai Grabet argazkilari alemaniarrek minutu bateko bideoan bildu ditu abuztuaren 9, 10 eta 11n Kaliforniako Joshua Tree parke nazionalen hartutako Perseiden irudiak. Ikus irudisorta ederra ondoko loturan.

ttiki.com/54139
(Frantsesez)

Oinarrizko partikula guztiak agian ez daude espazio-denbora berean

Varsoviako Unibertsitateko ikerlari talde batek urtetan egindako azterketaren arabera, oinarrizko partikula guztiak ez daude espazio-denbora berean. Big Bang-aren aurretik ez zen existitzen guk ezagutzen dugunaren moduko espazio-denborarik. Hura nola sortu zen jakin nahian, fisikari poloniarrek ondorioztatu dute masadun partikula bakoitzak bere espazio-denboraren "bertsioa" eraikitzen duela.

ttiki.com/54140
(Gaztelaniaz)

Ez du axola ariketa fisikoaren maiztasunak, kantitateak baizik

Ontarioko (Kanada) Queen's University-ko ikerlarien arabera, ariketa fisikoaren eta osasunaren arteko erlazioan garrantzitsua da kantitatea frekuentzia baino, hau da, astero egiten den denbora guztia egun batean metatzeak edo denbora hori hainbat egunetan banatzeak ez du eragin nabaririk osasunean.

ttiki.com/54141
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16